

# noaua

Jontxuren aldeko  
omenaldia prestatzen  
hasiko dira laister

Igande honetan,  
Erle Eguna

Usurbil FT-ko talde  
guztiak, argazkitan



Errekatziki kaleko bizilagunek jaso dute  
**Gipuzkoako Foru Aldundiaren**  
**2014ko Zero Zabor saria**

**ZURE KOMUNITATEA  
ADMINISTRATZEN DUGU!**

Usurbilen, Donostian eta Lasartean gaude.

**PROFESIONALITASUNA, GARDENTASUNA,  
HURBILTASUNA eta KALITATEZKO ZERBITZUA.**

AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE!

Tel 843 630847 - 685114235

info@gipuzkoalegal.com

eta Galnera...

**LEGE-AHOLKULARITZA:**


Erreklamazio judizialak zein estrajudizialak  
Komunitatekoel eta bitartekotza auzoko gatazkan ahol-  
kularitza. Alokairuko auzokoel kudeaketa (kontratuak,  
ordainagiriak, etxegabetzeak, erreklamazioak eta abar.)

*i  
l  
e  
a  
p  
a  
i  
n  
d  
e  
g  
i*

**mistoa**

**Koloraziotan teknika  
berriak eta iraunkorrak**

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



**SALTxiPI**

**JATETXEA • RESTAURANTE**

*Zure betiko  
bazkari/afariak Saltxipin*

943 32 33 10 [Reservas@saltxipi.com](mailto:Reservas@saltxipi.com)



Ategorrietako galtzarra zaharra, 3 DONOSTIA



## Albiste iruditan

# Datorren legealdiko programa prestatzen hasi da EHBildu

Udal ordezkariak, zenbait herri eragileetako kideak eta hainbat herritar elkartu ziren aurreko larunbatean Potxoenean, EHBilduk deitu zuen batzarrean. Amaitzear den 2011-2015 legealdiko balantzea aurkeztu zuten, eta balantze hori izango da hurrengo legealdiko programaren abiapuntua.

"Ondo egin duguna izango da hurrengo legealdiko abiapuntua. Baita erdizka egindakoak zuzendu eta gaizki edo egin gabe utzi duguna zuzentzeko konpromiso sendoak harilkatu behar ditugu. 2015-2019 legealdian egin nahi duguna zehaztu aurretik amaitugabe dagoen legegintzaldi honetan egindakoaren balantzea aztertzea garrantzitsua deritzogu", zioen Usurbilgo EHBilduk azaroaren 22rako antolatua zuen batzarrean deialdian.



"Hari gara" ekimenaren bitartez, legealdiaren balantzea egiteari ekin dio EHBilduk.

## Laburrean

### Abenduaren 4an greba orokorra Osakidetzan

Lau orduko lan uztea lehenbizi azaroaren 6an, hurrengo asteetan herrialdekako egun osoko greba deialdiak egin ziren. Azaroaren 20an Gipuzkoa mailakoa egin zen. Anbulatorioan pediatrian eragin zuen. Lasartera bide-ratu behar izan zituzten haurrak.

Iragarria zuten moduan, lan gatazka bideratzen ez bada, Osakidetzako sindikatuek egun osoko lan uztera deituko dituzte, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako langileak, abenduaren 4an ostegunarekin. Zerbitzu hobea eskatzen dute, galdutako lanpostuak berreskuratzea.

### 'Koop-eratzan' egitasmoan izena emateko aukera

Eskualdeko ehun ekonomiko eta soziala suspertzera datorren proiektu aitzindaria da Koop-eratzan. Aurreko astean eman genuen honen berri. Buruntzaldean, langabezian direnei deialdi berezia egin nahi zaie. Proiektu berri bat gauza-tzeko aukera paregabea eskura dutelako orain "Koop-eratzan" egitasmoaren bitartez.

Izena emateko epea azaroaren 28ra arte egongo da zabalik. Usurbilen, udaletxera deituta: 943 371 951 (Josune Mujika). Gai honi buruzko informazio gehiago, laster martxan izango den kooperatzen.net atarian aurkituko duzue.

### Aurrera doa gazte lokalen parte hartze prozesua

Bizikidetzeta eta gazte lokalen inguruan, parte hartze prozesua abiarazi berri du Udalak. Dagoeneko hainbat bilkura egin dira. Aste honetan, tailer batean biltzekoak dira gazteak zein helduak (azaroak 26 asteazkena, 19:00etatik aurrera Potxoenean).

Abenduaren 10ean izango da hurrengo hitzordua. Tailerra antolatu dute gazte zein helduekin: aurreko bileretan landutako diagnostikaren aurkezpena eta ekarpen bilketa egingo da bertan. Eta adostasunak lantzen hasiko dira. 19:00etan Potxoenean. Udala ari da ekimen hau sustatzen, Elhuyarrek elkarlanean.

# noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkariko koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaqua.com

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaqua.com:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## Imanol Ubeda

Hitzekin lanean ari-tzen garenok aje handiak ditugu. Handiena akaso hauxe izango da: nola esan, nola adierazi, azaldu beharreko hori. Alegia, esandakoak behar bezala ulertzen sokaren bestaldean den irakurleak.

Horri lotuta dago beste aje handi bat: hitz potoloekin aritzeko joera. Zer esan nahi dugun badakigu, baina zer ulertuko diguten ordea, ezin asmatu... Baina hitz eder batek hainbeste luzitzen du goiburua batean, entresaka batean edota albiste baten sarrera-txoan.

Euskal prentsaren bueltan gabiltzan hedabideak 'irismena' hitzarekin kateatuta gabiltza azkenaldian (hedabide ez publikoak, zehatz esanda).

*Irismen.* Zerbaiten eragina heltzen den eremua.

Eta lagunak dituzu galdezka, asalaturik, ia zer gertatzen ari den euskal hedabideekin, dirulaguntzak kendu behar ote dizkiguten. Eta orduan azalpenak eman beharrean aurkitzen zara. Larunbat arratsalde batean. Eta ezetz. Hori ez dela erabat horrela. Dirulaguntzak banatzeko irizpide berriak izan dituztela kontuan, eta oraingoan irismenean erreparatu dutela nonbait. Eta NOAUA!ren kasuan, adibidez, haizea alde izan dugula (noizbait beharko zuen izan).

Eta irismena esplikatzeko argudio bila hasiko zara, barraren ertzean lau kaña eta bi zurito eskatzen dituzun aldi berean. Lagunak adi izan dituzu zure argudioak entzuten. Eta konforme aurpegia ipini dute. Baina askotan, azalpen errazenak dira zailenak esplikatzeko. Eta ondoren, gure gauzetaz aritu gara hizke-

tan. Bizitza uste baino konplikatuagoa da eta norberak darma bere sufrikarioaren zama. Lagunartean baina, dena da askoz eramangarriagoa.

Astelehena iritsi da. Goizeko 9:00ak dira eta posta elektronikoa ohar hauxe jaso duzu, ia *Gazi, gozo, gezan* tarterik egingo ote diogun: "Atxegaldeko Erdiko kalean katu bat galdu da. Emea eta marroi oso argia da. Sasi du izena eta argala eta txikitxo da. Norbaitek aurkituko balu eskertuko genuke abixatzea, eskerrik asko".

Eta orduan topatu duzu larunbatean poteoan burura etorri ez zitzaizun argudioa: "Irismena da katu galdu eta NOAUA!n ohar bat ipintzeko ideia pizten dizun mekanismoa, edota irismena da Mikel Laboaren eskultura paperez josita ikusi eta kexu bat idatzi

eta bidaltzea...".

'Irismen' hori ordea, ez da egun batetik bestera lortzen. 1996an, herri honetan koadrila handi batek ideia handi bat izan zuen. "Usurbilgo etxe eta baserri guztietan banatuko dugu, eta doan".

Jakingo zuten noski, era horretan soilik ziurtatuko zutela euskararen presentzia etxe denetan. Horrek suposatzen duen ahaleginarekin. Baina ia 20 urteren buruan hala da oraindik: NOAUA! da askok eta askok euskaraz jasotzen duten idatzizko informazio bakarra. Buzoieta ez ezik, herritar askoren bihotz begietara iristen da astero-astero. Eta erreminta gisa baliatzen du gainera. Eta zer esango dizuet nik, irismena edo dena delakoa izan zela eta orain ere badela: abiapuntu eta helburu.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

## Ika-Mika

### Guk ez baditugu gure gauzak zaintzen...

Denok ikusi dugu, orain egun gutxi nola margotu duten herriko frontoia, eta baita ze ederra gelditu den ere! Baina, zenbat iraungo du?

Aste honetan bertan, zur eta

lur gelditu naiz, paretetan pegatuta dauden "kartel" edo irudi horiek ikusita.

Nik uste, irudiek eskatzen duten errespetu berbera eduki beharko genukeela herriko zenbait

gauzekin, Mikel Laboaren eskulturarekin ere, besteak beste.

Guk ez baditugu gure gauzak zaintzen... Zer eskatu behar diegu besteei?

E.G.\*

## Azaroko azken ostirala

Ohi bezala, euskal presoek eskubideak errespetatuak izan daitezkeen aldarrikatzeko, Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak deituriko hileroko elkarretaratzea, ostiral honetan, azaroaren 28an, iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: abenduak 5. Idatzia ekartzeko azken eguna: abenduak 1.

www.noaua.com  
USURBILGO ATARIA

ELORZA

O BRAK ETA  
ER REFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

## Udalaren adierazpena: “Usurbildik euskarari ekarpen garrantzitsua egin dezakegu”

**A**benduaren 3an Euskararen Eguna ospatuko da. Herriko talde batzuk hasi dira egun horren bueltan egitarau bat prestatzen. Bien bitartean, Udaletxean adierazpen bat adostu dute. Aste honetako plenoan zen onartzekoa.

### Euskararen eguna 2014

Udalak herritarrek zoriondu eta euskara sustatzeko konpromisoa berretsi nahi du - Gure udalerrria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Gurean, beste hainbat tokitan ez bezala, nagusi da euskara. Belaunaldiz belaunaldi transmititutako hizkuntza, naturalki erabiltzen dugu eguneroko bizitzan.

-Usurbil herri euskalduna da, eta hori herritarrek bermatu duten lorpen bat izan da. Usurbilen, euskaraz bizitzea lehenetsi dugu eta euskararen bizitasuna mantendu dugu. Usurbilen babes sozial zabala dauka euskarak. Oraindik, ordea, badira osotasunez euskaraz bizitzea eragozten diguten hainbat hutsune (lan muduan, administrazioan...). Eta hutsune horiek gainditzeko lan egin nahi dugu.

- Usurbilgo herritarrek bezala, bertako



Abenduaren 3an ospatuko da Euskararen Eguna. (Irudia: NOAUA!)

udalak ere euskararen aldeko hautua egin du. Lan handia egin dugu udala euskalduntzeko, eta UEMAko udalekin batera, erreferentziazko udala bilakatu gara euskararen erabilerari dagokionean.

- Gurea bezalako herrien, udalerrri euskaldunen, eginkizuna garrantzi handikoa da euskararen normalizazioa prozesuan. Euskarara nagusi den gutxieneko lurralde hori ezinbestekoa da edozein hizkuntza aurrera ateratzeko. Euskara biziko bada, nagusi izango den lurgunea behar du.

- Edozein hizkuntzak nagusi den esparruak behar ditu. Arnasgune horietan, bilatu beharko du biziberritu nahi den hizkuntzak heldulekua; bai belaunaldiz belaunaldiko transmisioari, bai hizkuntzaren funtzio komunikatiboari, bai hizkuntzaren balio erreferentzialari dagokionez. Euskararen arnasgune horiek zaindu, sortu eta, hala balitz hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro.

- UEMA eta bertako kide garen udalok euskararen arnasguneak sendotu eta zabaltzeko lanean dihardugu. Izan ere, administrazioaren ardura ere bada gure hauek zaindu eta atzera egin ez dezaten politikak martxan jartzea. Iruditzen zaigu gure herriak badaukala profila euskararen normalizazioan eredu izateko.

- Euskal Herria euskalduna dugu helburu, eta norabide horretan, Usurbildik euskarari ekarpen garrantzitsua egin dezakegu. Udalerrri euskaldunetako herritarrok euskararen normalizazioan euskararen hedatzaile papera jokatu behar dugu. Horrela, euskararen arnasguneak zabaldu eta hedatzeko.

Usurbilen, 2014ko azaroaren 17an  
**Usurbilgo Udala**

### Ilka-Mika

## Gure atsekabea adierazi nahi diogu Lizartza Arregi sendiari

**E**ta orain zer? izenburuaren azpian NOAUAren 593. zenbakian Aginagako hilerriko kudeaketari zegokion herritar batek egindako kexa argitaratu zen, tamalez jada konponbiderik gabekoa eta atzera bueltarik ez duena. Gertakizuna NOAUA!ren bitartez jakin genuen: senideen gorpuzkinak hilobitik atera egin zirela abisurik eman gabe.

Interesdunarekin zuzenean Udaletik hitzegin badugu ere, NOAUA!n ere gure azalpenak eman nahi ditugu gai honen inguruan.

Administrazioaren prozedurak ohikoan oso zuhurrak eta zehatzak izaten dira epeei dagokienean batez ere. Horietako kasu baten aurrean gaudela esan genezake. Baina, egia da, baita ere, legeak markatzen duen prozeduratik at, herritarren baitan eragin zuzena duten gai delikatueta -eta hau horietakoa da-, jakinarazpenak hitzez ere egingen direla. Denboran zehar ongi funtzionatu duen ohitura honek -gorpuzkinak epea pasa ondoren ateratzeko asmoa dagoenaren berri ematea, alegia- hutsegitea ekarri du oraingoan. Urteetan ohikoa izan

den prozedurak oraingoan ez du ongi funtzionatu.

Arduradun politikoak garen heinean, gure nahigabea azaldu nahi diogu familiari. Bi pertsonen arteko elkarriketak eta gauzak ongi egiteko saiakerak, batek daki zergatik, ez dute behar zuen emaitza izan. Gure ustez, gaizki ulertu bat egon zen abisua eman edo jaso zeneko elkarriketa horretan.

Edozein kasutan, gertakizun honek agerian utzi du Administrazioan ere hutsuneak badaudela eta hilerritik gorpuzkinak atera

behar direla idatziz jakinarazi behar dela, gaizki ulertze eta akatsei tarterik ez uzteko.

Antzeko gertaera tamalgarririk berriro gerta ez dadin, aurrerantzean beharrezkoa den prozedura finkatu eta martxan jartzera behartuta gaude.

Udal gobernuaren izenean, gure atsekabea adierazi nahi diogu Lizartza Arregi sendiari jakinda, goian aipatu dugun bezala, jada konponbiderik ez duela.

**Mertxe Aizpurua,**  
**Alkatea**

# Larunbatekoa “espektakulu bat izango da, gozatzeko parada ezin hobea”

KILOMETROAK-EN ALDEKO JAIALDIA KIROLDEGIAN IZANGO DA, ARRATSALDEKO 19:00ETAN



Ikuskizunean parte hartuko dute argazkian ageri direnek. Astelehenean, Udarregiko patioan harrapatu genituen entsetzen.

Aste hasierarako sarre-  
rak ia agortuta zeu-  
den. Ikusmina handia  
da. Herritarrak Kilometroak  
15 ekimenak dakarrena eza-  
gutzeko irrikitan dira. Gutxi  
falta da. Larunbat honetan  
19:00etan Oiarde Kiroldegian,  
hitzordua dugu denok. Sarre-  
rarik gabe geratu zaretenok  
adi, 18:00etatik zabalik egon-  
go den Kiroldegiko tabernan  
pantaila batetik zuzenean es-  
kainiko baita, antolatzaileen  
esanetan, “espektakulu” ga-  
lanta izango den aurkezpen  
ekitaldia. Zehaztasun gehiago,  
ekimena lantzen aritu diren  
ikuskizunen taldekoen esku-  
tik.

**Zuen lan taldeak zer ardura har-  
tu ditu bere gain?**

**Kilometroak Ikuskizunen Ba-  
tzordea:** Ekitaldiari dago-  
kionez, ekitaldia bera sortu,

## EKAINEAN HASI ZIREN

**“Emozioak bilatu  
nahi izan ditugu,  
baina ekitaldia  
planteatzerako unean  
helburu jakin batzuekin  
egin dugu, adibidez  
ikastolarekiko  
kontzientziazioa”**

eszena bakoitzeko taldeak  
osatu eta hauen koordinatzaile-  
ekin harreman lanak egitea  
izan da. Sortzearen eta koor-  
dinatzearen eremuetan mugit-  
u gara.

**Momentuz talde jendetsuena  
izan liteke zuena, larunbateko  
ikuskizunerako lagun mordoak  
bildu duzue ezta?**

Lan taldea txikia da. Kontua  
da ekitaldi honetarako jendea-  
ren partehartze handia behar

genuela, ekitaldi jendetsu bat  
izango baita. Baina atzetik oso  
jende gutxi aritu gara.

**Jendetza hau bildu eta koor-  
dinatzeak, sukalde lan handia es-  
katuko zuen. Zer nolako lanketa  
burutu duzue orain arte?**

Ekainetik hasi ginen hau pres-  
tatzen. Eta ideiak botatzen  
joan ahala erronka handi bat  
helburu bezala jartzen ari gi-  
nela ikusi dugu.

Emozioak bilatu nahi izan  
ditugu, baina ekitaldia plan-  
teatzerako unean helburu jakin  
batzuekin egin dugu, adibidez  
ikastolarekiko kontzientzia-  
zioa.

**Larunbateko ikuskizuna adje-  
tibo gutxi batzuekin, nola defini-  
tuko zenukete?**

Espektakulu bat izango da,  
gozatzeko parada ezin ho-  
bea.

**Entsegu saioak zer moduz  
doaz?**

Oso ondo doaz. Jendeak go-  
goak dituela ikusten da eta  
baita ilusioa ere. Eta horiek  
behar ditugu.

**Azaroaren 29ko ikuskizunaren  
ostean, zein izango da eskuar-  
tean izango duzuen hurrengo  
zeregina?**

Hurrengo ekitaldia zein izan-  
go den oso ondo ere ez da-  
kigu. Orain aurkezpen ikus-  
kizuna egin eta hau baloratu  
beharko dugu. Balorazio hon-  
en arabera norabide bat edo  
beste hartuko dugu hurrengo  
ikuskizuna sortzeko.

**Herritarrik animatuko balitz  
zuen lan taldera, zer ekarpen  
egin dezake?**

Ilusioa, gogoa ... ongi etorriak  
izango dira. Ez dago gaitasun  
jakin bat honetarako.

# Kilometroak denda, zabalik igandetik aurrera

## Zer aurkituko dugu bertan?

**Arropa salmenta batzordea:** Batez ere arropa salduko dugu. Beste Kilometroak edizioetatik bereizi nahi genuen. Batez ere eguneroko arropa, berezia izatea nahi genuen. Horretarako boluntario profesionalak izan ditugu; Nora Izagirre izan da diseinatzailea. Bere lana aipatzekoa da. Arropa heldu da, oso polita. Kaleko arropa izango da, oinarrizko arropa eta kiroletarako arropa. Denetarik.



Igande honetan zabalduko dituzte Kilometroak dendako ateak.

## Neska, mutil, heldu nahiz haurrentzat?

Denentzako. Jendea etorri ziztaigun hasiera batean esanez, taila handiko Kilometroetako arropa ez zela saltzen, helduentzako ezta. Denentzako atera da; helduentzat, eta taila handiak ere egongo dira. Oso arropa polita gainera. 6 hilabeteetik gorako haurrentzako apustu handia egin dugu.

## Dendan aritzeko lan taldea ere prest duzue?

Lan taldea osatzeko, beste herrietan nola antolatu ziren ikusi genuen. Amaieran egiten di-

**LAGUNTZA HANDIA**  
**“Ordu piloa sartu dituzte. Paretak txukuntzen, margotzen pasa dituzte, baita larunbat eta igande bat baino gehiago ere”**

tuzten txostenetako aholkuak kontuan izanda, 16 pertsonako lan taldea osatu dugu. Guztiak emakumeak, erdia baino gehixeago emakume jubilatuzteak, denbora nahikoa dutenak, adibidez, aste osoan egunero etortzeko. Beste emakumeen profila, goizez lan egiten duen

emakume gazteagoa eta arratsalde zai duena. Bi taldeetan banatu ditugu. 8 egongo dira goizez, beste 8 arratsalde. Beti txanda berdinean. Honekin gehienbat seriotasuna, egonkortasuna, profesionaltasuna eman nahi diogu dendari.

## Ohiko saltoki baten bizimodua izango du Kilometroak dendak ere?

Garaian garaiko arropa salduko dugu. Orain neguko arropa jarriko dugu salgai. Aurrerago, udarako kanpainari helduko diogu. Gero denborarekin, agian ordutegia ere moldatu

dezakegu. Hau guztia, herritarren erantzunaren arabera izango da. Jendeak erakutsiko digu hemengo martxa nolakoa izango den.

## Lan talde bat osatu duzue ez bakarrik dendan lan egiteko. Denda bera prestatzeko ere? Azolan handia egon da?

Laguntza ikaragarria egon da. Ordu piloa sartu dituzte. Paretak txukuntzen, margotzen pasa dituzte, baita larunbat eta igande bat baino gehiago ere. Argi indarrari dagokionez, instalakuntza berria sartu da. Denda berria geratu da. Eta zer esanik ez, altzariak egin dituztenak, ordu piloa pasa dituzte biltegian. Jendearen erantzuna oso ona izan da.

## Irekiera, igandeko Erle Egunean.

Larunbateko Kilometroak 15 ekimenaren aurkezpen ekitaldian, arroparen desfilea egingo da. Bertan ezagutuko da logoa, eta arroparen itxura orokorra. Igandean, denda irekiko da. Gonbita herritarrei, dendara etorri eta gunea eta arropa ikus dezaten.

# Arropa salmenta batzordekoen bilera

Ostegun honetan, azaroaren 27an, iluntzeko 19:00etan Udarregi Ikastolan, bilduko da arropa salmentako batzordea. Batzordeak urtean zehar egingo dituen irteeren funtzionamenduari buruz hitz egingo da bertan, izena eman dutenekin.

## Izena ematen ari al da jendea?

**Arropa salmenta batzordea:** Jende dezente apuntatu da. Gustura gaude apuntatu den jende kopuruarekin. Eta esperantza dugu jende gehiagok izena eman eta irteerak ondo aterako direla. Zenbat eta jende gehiagok izena eman ho-

beti, talde bakoitzak irteera gutxiago egiteko.

Azpimarratu, talde bakoitzak ez duela astero irteerarik izango. Hilean bat edo batzuetan bi gehienez. Gabonen buelta eta udaberri-uda parteak izango da garai mugituena. Igandean egingo dira lehen hiru irteerak.

Usurbilen ere zenbait egunetan postua jarriko da; abenduaren 14ko Santo Tomas azokan adibidez. Baita beste egun berezietan ere.

## Zertaz arduratu behar dute irteeratara doazenek?

Bosteko taldeak osatzea aholka-

tzen da. Berez laurekin nahikoa dela aurreikusten da. Baina bosgarren hori beti ondo dator, baten bat falta bada, edo edozer gertatuta ere. Bi lagun erropa saltzera joango liriteke, gainerakoak errifak saltzera. Jaiaren arabera izaten da irteera. Batzuetan goizerako bakarrik, beste batzuetan egun osokoa.

## Aproposa taldean egun pasa joateko?

Koadrilan giro ona sortzeko eta baita jende berria ezagutzeko ere. Halako ekintzekin jende berria ezagutzeko aukera dago eta lagun arte polita sortzen da gero.



Zubiaurrenea 3 kalean dago denda.

## Astelehenetik larunbatera zabalik

**Irekiera:** azaroak 30 igandea, 10:30.

## Abenduaren 1etik aurrera:

Astelehenetik ostiralera: 10:30-13:00 eta 17:00-20:00. Larunbatetan: 10:30-13:00.

## Josune Urkola izango da Usurbilgo alkatetzarako EAJ-PNVren hautagaia



Otsailean hasi zen zinegotzi lanetan, Andoni Atxega ordezkatuz.

Josune Urkola izango da Usurbilgo EAJ-PNV alderdiaren hautagaia 2015eko udal hauteskundeetan. Usurbilgo Uri Buru Batzarra igorri digun prentsa-oharrak dioenez, Josune Urkolak pozez hartu du bere alderdiaren erabakia, "ohore" handia delako beretzat Eusko Alderdi Jeltzalearen ordezkari izatea Usurbilen. "Erronka handia dauka eskuartean, baina ziur da, osatu duten taldearekin batera, lana ondo baino hobeto egiteko gai izango dela", EAJ PNVtik aditzera eman dutenez. Segidan duzue prentsa-oharra osorik.

"Usurbilgo EAJ-PNVk Josune Urkolaren aldeko apostua egin du datorren urteko udal eta foru hauteskundeetarako, bera izango baita Usurbilgo Alkatetzarako hautagaia.

Jaiotzez asteasuara da Urkola, baina bere burua ia usurbildartzat dauka bi hamarkada baino gehiago daramatzalako bertan bizitzen. Hautagai jeltzaleak 46 urte ditu, ezkondua dago eta bi seme-ren ama da.

Hautagai jeltzaleak gaztetatik maite izan du herrigintza eta horregatik hurbildu zen EAJ-PNVren eskutik herri mailako politikagintzara. Azken urteotan bigarren mailan aritu da jardun horietan, baina pasa den otsailaz geroztik zinegotzi lanetan dihardu, Andoni Atxegaren ordez sartu baitzen Udalean.

Enpresen aholkularitzan lan egin du Urkolak gaztetatik. Administrazioa ikasketak amaitu ostean, hainbat enpresen kontabilitateaz eta zergen kudeaketaz arduratu da. Gaur egun, eraikuntzako enpresa txiki batean lan egiten du.

EAJ-PNVk zerrendaburu izatea proposatu zionean "poza handia" sentitu zuela onartzen du, "ohore" handia delako beretzat Eusko Alderdi Jeltzalearen ordezkaria izatea Usurbilen. Erronka handia dauka eskuartean, baina ziur da, osatu duten taldearekin batera, lana ondo baino hobeto egiteko gai izango dela.

Usurbilgo Uri Buru Batzarra"

### Igande honetan, 1952ko kinto bazkaria

Duela 62 urte jaiotako usurbildarren bazkaria igande honetan izango da, azaroak 30, eguerdiko 14:30etik aurrera Patri jatetxean. Izena emateko epea azaroaren 19an amaitu zen.

### Datorren astelehenean, Mikel Laboa gogoan

Abenduaren 1ean Mikel Laboa hil zela 6 urte beteko dira. Urtero moduan, bere izena daraman plazaren bueltan musikaz girotuko du eguna, Udalak hala erabakita.

### Abenduaren 2an amaituko da Odol emaleen eguneko bazkarian izena emateko epea

Antxeta jatetxean ospatuko dute odol emaleek haien eguna, abenduaren 8an. Bazkari baten bueltan. Otordurako aurrez eman behar da izena. Abenduaren 2a baino lehen, telefono zenbaki hauekiko batera deituta: 943 363 102 (Agustina), 943 366 040 (Maite), 943 370 723 (Jero), 943 372 487 (Marisol).

### Karmele Jaioren "Las manos de mi madre" Sutegin aztergai

Abenduaren 10ean asteazkena, arratsaldeko 19:00etan, gaztelarazko literatura topaketa berri bat egingo dute Sutegin. Karmele Jaioren "Las manos de mi madre" liburuaren inguruan jardungo dute, eta gidaria, oraingo honetan, Ana Merino usurbildarra izango da. Parte hartzeko interesa duen edonorentzat, liburuak iada eskuragarri daude Sutegin.

- <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>
- Twitter: @usurbib
- Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia
- Noau! Komunitatea: Sutegi Udal Liburutegia
- App: Liburutegiak

Zuen  
publizitatea  
hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

Inaki  
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com  
600 024 825

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Otar-Goxo  
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil



# Euskararen Egunean, plazara

**E**uskara, jalgi hadi plaza-  
ra! zioen abesti ezagun  
hark. Kantaren leloa  
ezin hobeto datorkigu artikulu  
honetarako. Herri eragile talde  
batek elkarlanean, abenduaren  
3an ospatuko den Euskararen  
Egunerako ekimen sorta anto-  
latu baitu. Parte hartzera ani-  
matzen gaituzte. Jai giroan,  
Euskararen Eguna ospatzera  
eta aldarrikatzera; euskarari  
geure agendan eta herriko pla-  
zan tartea egitera.

Abenduaren 3a ezohikoa  
izango da herriko ikastetxee-  
tan. Eta ezohikoa aurten, ilun-  
tze partean kalean. Kalejira eta  
ekitaldi berezi baten bueltan  
hitzartu nahi dituzte herritar-  
rak, besteak beste, Udarregi  
Ikastolak, Aginagako eta Zu-  
bietako Eskola Txikiek, Kantu  
eta Dantza Taldeek, Ziortza  
Gazte Elkarteak, Usurbilgo  
Gaztetxeak, Zumarte Musika  
Eskolak edota NOAUA! Kultur  
Elkarteak.

**Abenduak 3, asteazkena**  
**11:00-12:30** Aginako Esko-  
lako eta Udarregi Ikastolako  
kalejira/euskaraokea/mezu  
jaurtikera/kalejira.  
**16:30-18:30** Haurrentzako hiz-  
kuntza-jolasak.  
**18:30** Kalejiraren hasiera Dema  
plaza, frontoi ingurutik.  
**19:30** Kalejira Dema plazan ama-  
itu. Gaztaina erreak. Ekitaldia.  
**Oharra:** behin behineko egi-  
taraua. Zehaztasun gehiago,  
egunotan noaia.com atarian.

## Inkesta

- 1- Zergatik eman behar diogu Euskararen Egunari lekua Usurbilen?
- 2- Euskaldunok euskaraz bizitzeko zer falta dugu?
- 3- Zergatik gerturatu behar gara plazara, abenduaren 3an?



**Ane de Miguel,**  
**Ziortza**

■ 1- Orain arte, askotan ikas-  
tolan bakarrik bultzatzen zen  
Euskararen Eguna. Ikastolak  
egun hau kalera zabaltzeko  
gonbita luzatu zigun. Aukera  
polita eta interesgarria ikusi  
genuen, denen eskura egongo  
den zerbait antolatzea.  
■ 2- Normalizazioa. Usurbilen  
ia denek dakigu euskaraz eta ia  
denek erabiltzen dugu euska-  
ra, baina adin tarte batzuetara  
heltzea falta zaigu, batez ere  
auzoetan. Adin guztiei zuzen-  
duriko ekintzak antolatu ditu-  
gu, herriko gune ezberdinetan.  
■ 3- Euskara hor dago, erabil-  
tzen dugu, goazen erabiltzen  
jarraitzera eta erabiltzen dugu-  
la ospatzera.



**Ibon Azkonobieta,**  
**Udarregi Ikastola**

■ 1- Alde batetik, ikastolan  
bertan ospatzearekin bakarrik  
oihartzun gutxi izaten zue-  
lako. Eta bestetik, gure hiz-  
kuntza normalizazio bidean  
jarraitzen duelako eta ahalik  
eta arnagune gehien eskain-  
tzea garrantzitsua ikusten du-  
gulako. Horrelako egun bat  
ospatzean, festa eta euskarari  
eragin behar diogunaren alda-  
rrikapena uztartzen ditugu.  
■ 2- Egitekoen artean, ezagu-  
tzatik erabilerara dagoen tar-  
tea murriztea litzateke erronka  
nagusietako bat. Horretarako  
ordea, bizi dugun egoera ho-  
betzea gure esku dagoela ja-  
betu eta egunerokotasunean  
hizkuntzarekiko jarrera al-

daketan ahaleginak egin be-  
harko genituzke.

■ 3- Abenduak 3an herrita-  
rrak parte-hartzera animatuko  
nituzke ekimen hau herritik  
sortu delako eta herritarren  
presentziarik gabe zentzurik  
ez lukeelako izango. Egunari  
bizitasuna herritarrek emango  
diote.



**Ugaitz Agirre**

■ 1- Sarri euskaraz hitz egitea  
ahaztu egiten zaigula gogora-  
tzeko.  
■ 2- Euskaraz bizi daitekeela  
sinestea.  
■ 3- Aurreko bi erantzunak  
egia ez direla esateko.

## Hauteskundeak Gure Pakea elkartean

Zuzendaritza berritzea ego-  
kituko zaio Gure Pakea  
elkarteari, datorren urte ha-  
sieran. “Gure erakundeak,  
estatutuei jarraiki, zuzen-  
daritza-batzordearen %50  
berritu behar du (ahal dela,  
2 emakumezko eta 2 gizo-  
nezko), 2015eko urtarrilean  
egingo den batzar nagusian”,  
ohartarazi dute jubila-  
tuen bilgunetik.

Zuzendaritza berritzeko  
hauteskundeak deitu dituz-  
te. Hautagaiek, zuzenda-  
ritzako kide izateko beren  
burua aurkeztu dezakete,  
abenduaren 1etik 23ra. Bi-  
deotatik eman dezakete ize-  
na:

- Astearte, asteazken eta  
ostegunetan, 10:00-12:00 ar-  
tean, Gure Pakea elkarteak  
Artzabalen duen egoitzan.
- Email bat idatziz, gure-  
pakea@ymail.com helbide-  
ra.
- Bulegora deituta:  
943368770.

## Errigorako otarrak iritsi dira

Aurten 79 izan dira kanpai-  
narekin bat egin dutenak  
gure herrian. Astelehenetik  
NOAUA!ko bulegoan dira  
otarrak. Izena eman ba-  
zenuen aurretik, bila pasa  
zaitezke. 50 euro, saski  
bakoitzeko. Ekimen honen  
bitartez, Nafarroa erriberako  
ikastolak, Erriberako AEK  
eta “Euskaraz bizi eta ikasi”  
herri ekimenaren Hamarraz  
proiektua finantzatuko dira.



79 otar eskatu dira Usurbildik.

# Jontxuren aldeko omenaldi eguna antolatzekeo bilera

Aurreko astekarian iragarri bezala, otsaila aldera bota dezakete Usurbilgo Gaztetxea. Egoera honen aurrean, "Ez dadila harria eten!" lemapean, ekimen zaparrada antolatu dute gazte asanbladakoek. Hurrengo hitzordua igande honetan, azaroaren 30ean, bilera irekia deitu dute 18:30ean Potxoenean, urte hasieran gure artetik joan zen Jon Uriberen aldeko omenaldi eguna antolatzen hasteko.

"Geroz eta jende gehiago inplikatu geroz eta festa politagoa izango da", adierazi dute Gazte Asanbladatik. Hitzordua, eragile nahiz herritarrei zuzendua dago. Ahalik eta egitarau anitzena osatu nahi dute, "Jontxuk hori eta gehiago merezi zuen eta". Uriberen omeneko eguna, gaztearekin hartu emana zuen talde eta herritar ororen bilgunea izatea nahi dute. Prestaketa lanekin hasteko ideiak bildu nahi dituzte lehenbizi, azaroaren 30eko bileran. Hona hemen, hitzordu honen eta gainerako ekimenen berri:

## Azaroak 30, igandea

18:30 Herritar nahiz eragileei zuzenduriko bilera irekia Potxoenean, urtarrilaren 3an ospatuko den Jon Uriberen



Iaz, Jontxuren omenez murala ipini zuten Sutegin. Aurtun, omenaldi bat egingo diote urtarrilaren 3an.

## JONTXU GOGOAN

**"Igande honetan, arratsaldeko 18:30ean bilera egingo da Potxoenean. Omenaldia urtarrilaren 3an izango da"**

aldeko omenaldi eguna antolatzekeo.

## Abenduak 6, larunbata

Kaos y lentejas jaialdia.

12:00 Prestakuntza.

14:00 Herri bazkaria frontoian: dilista dastatzea, borondatearen truke.

18:00 Kontzertuak Gaztetxean: Venganza (Zaragoza), Piñen (Bartzelona), Total Arse (Zarautz), Ernia (Zarautz), Infekzioa (Bartzelona-Usurbil), Hondartzako Hondakinak (Iparraldea), Endemaño (Bizkaia), Octopussys (Bizkaia), Segurrata (Zaragoza). Sarrera: 5 euro.

## Abenduak 11, osteguna

20:30 Afari beganoa, borondatearen truke.

## Abenduak 13, larunbata

Andatza M.K.T.-rekin eta Kantu Taldekoekin, Andatza ingurura mendi buelta.

Ondoren, babarrun jan paregabea gaztetxean, Kantu Taldekoekin.

## Abenduan zehar

Haur eta gaztetxoei zuzenduriko ekimenak.

## Urtarrilak 3, larunbata

Jon Uribe gure artetik joan zeneko lehen urteurrena; Jontxuren aldeko omenaldi eguna.

Antolatzailea: Usurbilgo Gaztetxea.

## Estatu krimenen inguruko hitzaldia, Aitzagaren eskutik

Astearte honetan Sutegin proiektatzekoak ziren "Zohardia", Josu Muguruzari buruzko dokumentalari lotuta, estatu krimenak hizpide izango dituen hitzaldia antolatu du Aitzaga Elkarteak, abenduaren 2an, Sutegin baita, 19:30ean. "Nola, zergatik

gauzatu diren, behar bezala aitortu eta epaitu diren aztertzeke harago, etorkizunari begira eta gatazkaren behin betiko konponbidea bideratzeko gure herriaren memorian nola jaso beharko lirakekeen", horri buruz jardungo dute hitzaldira gonbidatu dituzten bi lagunek;

batetik, HBko parlamentari ohi, kazetari eta besteak beste, Josu Muguruzari buruz kaleratu berri duen "Balek hondatu ez zuten ametsa" biografia lanaren egileetako batek, Mikel Zubimendik, eta Karmen Galdeanok, abokatu eta Egiari Zor elkarteko sortzaileak,

GAlek Iparraldean eraildako Xabier Galdeanoren alabak.

## Abenduak 2 asteartea

19:30etan Sutegin.

Hizlariak: Mikel Zubimendu, Karmen Galdeano.

## Abenduaren 13an, VIII. Jostailu Azoka frontoian

Jostailu erabilien azokak zor-zigarren edizioa beteko du aurten. Abenduaren 13an ospatuko da, eta aurreko edizioetan bezala, herritarren laguntza premian dira. "Zuen etxeetan erabiltzen edo behar ez dituzuen jostailu, ipuin, liburu, DVD eta antzekoak badituzue, orain duzue guzti hauei erabiltzen berri bat emateko aukera".



**Materiala batuko dute abenduaren 11n eta 12an, eta jostailu azoka abenduaren 13an egingo da.**

Azoka eguna baino lehen, abenduaren 11n eta 12an, 17:00etatik 19:00etara, Sutegiko erakusketa aretoan izango dira Hitz-Ahoko ki-deak, "ekartzen dizkiguzuen jostailuak jasotzen. Biltzen dugun guztia abenduaren 13ko azokan ikusgai jarriko dugu".

### Betebeharreko baldintzak

Ekimen honetan parte hartzeko baldintza hauek bete behar dira:

■ Jostailuak osorik egon behar

dute. Norberari hartzea gustatuko litzaizaien moduan.

■ Bilketa egunetan jasotzen dena musutruk emango da. Horren truke, nahi izanez gero, txartel bat jasoko du bakoitzak azoka egunean beste jostailuren batengatik aldatzeko.

■ Azoka egunean jostailuak trukatzeko 8 urtetik beherakoek arduradun batekin parte hartu beharko dute.

■ DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute.

Abenduaren 13an azokara hurbiltzen direnek, "egun horretan etxetik ekartzen dituzuen jostailuak guk azokan jarritakoekin trukatu ahal izango dituzue. Jostailuei erabiltzen berriak ematea eta haurren artean ohitura hori zabaltzea da helburua".

Azokaren bukaeran geratzen diren jostailuak beharra duten erakundeetara bideratuko dira.

### KzGunea, datozen ikastaroak

Datorren astelehenean, abenduaren 1etik aurrera, arratsaldean zabalduko dute KzGunea, 16:00etatik 20:00etara. Hilabete osoan zehar, eguberriak tarteko, egunotan izan ezik: abenduaren 24, 25, 26 eta 31. Abenduaren 8an ere itxita, jai eguna baita. Hauxe abendurako prestatu duten ikastaro eskaintza:

■ Abenduak 1-15: KzGunea Internet ikastaroa. Astelehenean ostiralera, 18:00-20:00 artean.

■ Abenduak 10-19: Sare Sozial ikastaroa. Astelehenean ostiralera, 16:00-18:00 artean.

■ Abenduaren 16tik 23ra. Google Apps ikastaroa. Astelehenean ostiralera, 18:00-20:00 artean.

■ Informazio gehiago:

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

kzgunea.net

Lehenengo 6 erosi-entzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

# ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

## 188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sub>n</sub>**

**VIVIENDAS LANIN S.L.**  
Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia E: contacto@viviendaslanin.com

# 943 46 88 60

**www.viviendaslanin.com**

**USURBILEN**

# “Usurbildarrok baduzue kizkian marka on bat egiteko indarra”

**E**rronka berri bat du Usurbilek. Kizkia eskutan duten 440 lagun biltzea, argazki erraldoi bat ateratzeko. Gerturatu igande eguerdian 12:30ean Sutegi atarira, eta bertan emango zaizkizue behar beste argibide. 2009az geroztik eskualdean herriz herri ospatzen ari den ekimen parte hartzaile honen bidez, sagardo ekoizteko prozesua eman nahi da ezagutzera. Herritarrek prozesu honetako partaide sentiaraztea. Egitasmo hau sortu eta koordinatzen dabil-tzan Goldean Elkarteko kideekin bildu gara, zehaztasun gehiagoren berri jasotzeko.



Sagardo Egunaren Lagunak elkartekoen babesarekin jarri dute ekimena martxan Goldean elkarteko kideek.

## Zer nolako ekimena dugu igande honetako?

**Antton Arka:** Kizki lagunen errekor bilketa berri bat jarri nahi da. Sagarrak biltzeko lanabesa den kizkiaren inguruan, herritarren topagunea sortzen ari gara eskualdean, azken bost urteotan. Herri bakoitzean ahalik eta kizki lagun gehien biltzea eta errekor berria edo marka berria jartzea da asmoa. Usurbilek hartu du lekukoa eta 440 kizki lagunen marka jarri nahi da. Orain arteko markarik onena Hernanik du, 436 laguneko kizki lagunena.

## Herritarrek zer egin behar dute?

**A. A.:** 16 urtetik gorakoei zuzenduriko ekimena da. Baina haurrak ere etor daitezke gurasoekin, beti ere kontuz ibilita, kizkiak punta zorrotza baitu. Partaide izan daitezke, baina zenbatzerakoan, helduen izena jasoko da. Inguru zehaztu bat egongo da, sagar baten irudi bat. Barruan, belardi edo sagasti modukoa eta bertan sagarrak zabaldua egongo dira. Herritarrek bertara sartuko dira eta sartzearrekin batera, herritar bakoitzaren izen-abizenak jasoko dira. Hartara ere, ofizialki sartzen diren pertsonak zenbatuko dira

## GOLDEAN ELKARTEA

**“Herri bakoitzean ahalik eta kizki lagun gehien biltzea eta marka berria jartzea da asmoa”**

banan-bana. Horretarako, sarretan, orain arte errekorra egin duten herrietako ordezkariak egongo dira. Herritar bakoitza bertan banatuko den kizkiarekin sartuko da. Ereku barruan, saskiak prestatuta egongo dira. Bakoitza bere lekua hartzen eta entsegu saioak egiten joango da. Eta gero, marka erregistratuko da, lau urratsetan. Lehenik eta behin, kizkia erakutsi egin behar da, guztiok besoak altxata. Ondoren, lurtean dagoen sagarra jo eta bertan geratu. Hirugarren urratsa, sagarra erakutsi eta bildu. Laugarren urratsa, otarrean jo, sagarra saski barrura erortzeko.

## Sagardogileen lanaren prozesua irudikatuko da?

**A. A.:** Hori da gure sagardogileek egiten dutena. Ekimen honekin herrira ekarri eta herritarrek ere

lan hauetan jartzen saiatu nahi dugu, sagardogintzaren inguruko kultura ezagutarazi eta parte hartzea sustatzeko.

## Eskualdeko beste herrietan zer nolako harrera izan du ekimenak?

**A. A.:** Urtero egiten da, herriz herri. Eskualdeko kizki eta sagardo laguneko sarea sortzen ari gara. Astigarragan hasi ginen 2009an, Santa Ana egun batean. 10.000 litroko gaztainondoko kupel bat egin genuen herriko plazan. Kupel hori ordaintzeko dirua behar genuen. Eta bururatu zitzaigun irailen asmatzea, plazaratzea proba hau. Egun osoko festa egin zen; kale girotea, sagardogintzako probak... 311 kizki lagun bildu ziren. Ondoren, Oiartzunen merkatu eta guzti 354 lagun, eta Goizuetan 400.

**Gabriel Lizeaga:** Goizuetan gainera harrigarria izan zen. Jendearen parte hartze handia. Ikustekoa izan zen, harrigarria.

**A. A.:** 2012an Hernanin izan zen, Sagarraren Egunean. 436ko marka jarri zuten, orain arteko marka altuena.

**G. L.:** Donostian Konstituzio

plazan egin zen iaz. Jendetsua izan zen. Baina ez zen lortu marka haustea. Antolaturiko ekintzen artean, garai batean sagardotegiak izan ziren lokale-tara bisitak izan ziren. Guneon historia azaldu zen.

**A. A.:** Aurten Usurbilek hartu du lekukoa. Datorren urtean Oretak. Eskualdeko itzulua amaitzeko, Astigarragan marka berri bat jarriko da 2016an; 1.000 kizki lagun bildu nahi dira.

## Argazki bat aterako da amaieran

**Animatu usurbildarrak parte hartzera...**

**G. L.:** Pozik ager daitezela egun horretan. Erle Eguna izanik eta ekimen hau egonik, animatu eta etorri kizkia hartzera.

**A. A.:** Partaideen argazki bat aterako da. Herriaren partaidetzarekin mosaiko bat osatu nahi dugu. Guretzat, Usurbilgo Sagardo Eguna erreferente on bat da eskualde mailan eta errespetuz hartzen den ekintza. Hori goraiatu behar da. Usurbildarrok baduzue marka on bat egiteko indarra. Animo!

# Eztia nagusi, XVI. Erle Egunean

**K**ata gidatua, erakustaldia, lehiaketa, salmenta postuak... Eztia izango da aurten ere, nola ez, XVI. Erle Eguneko produktu izarra. Ezti lehiaketa ezaguna ere ospatuko da. Aurten sorpresak iragarri dituzte sari banaketan:

## Azaroak 30, igandea

09:00-10:00 Ezti eta gozogintza lehiaketetarako jakiak aurkezteko tartea.

11:00-14:00 Erakusketa (erleak, eztia, ontziratzeko prozesua...), postuetako salmenta, txistulariak, marrazki lehiaketa, bideoak Sutegin.

10:30 Ezti Kata Gidatua eta eztia nola aterazen den erakustaldia.

12:30 Kizki lagunak: 400 lagun osatzeko erronka.

13:30 Erleak beraiek ekarritako sari banaketa (aurten sorpresa eta guzti):



Sari banaketa ikusgarria izan ohi da. Eguerdiko 13:30ean hasiko da.

- Ezti Lehiaketako irabazleak.

- Gozogintzako irabazleak.

- Marrazki Lehiaketako irabazleak.

- Ezti Lehiaketan irabazleak suertatzen diren eztekin, errifak salgai izango dira eta zozketa eguerdian egingo da.

14:30 Bazkaria Artzabal jate-

txean. Txartelak 25 eurotan frontoian izango dira salgai Erle Egunean.

Antolatzailea: Erle Lagunak.

## Igandean, eguerdiko 12:00etan aurkeztuko dute Eragile Feminista izeneko taldea frontoian

**I**gande honetan, Erle Egunean aurkeztuko dute jendaurrean, Usurbilgo Eragile Feminista. Igande honetan, azaroaren 30ean beraz. Baina iragarritakoa baino ordubete lehenago; 12:00etan frontoian. Aurkezpenaz gain, elkarretaratzea deitu dute.

Pasa den astearte honetan bezala. Hitzaldi, tailer eta film emanaldi batez osaturiko ekimen sorta burutu da azken egunotan, asteartean, azaroaren 25ean, gogoan izan genuen Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira. Egun horretan bertan egitekoa zen hain zuzen elkarretaratzea,



“Indarkeria sinbolikoa eta mikromatxismoak” hitzaldian egina dago argazkia.

eta osoko bilkura onartzekoa zen gai honi loturiko mozioa. Zehaztasunon berri, datorren astekarian.

### Azaroak 30, igandea:

#### Erle Eguna

12:00 Usurbilgo Eragile Feministaren aurkezpena eta

elkarretaratzea frontoian, “Autodefentsa feministaz leher-tu!” aldarripean.

### Abenduak 13, larunbata

Ondarrun, “Jostorrazak dantzan ditugu! Euskal Herriaren burujabetza feministarantz!” lemapean ospatuko diren Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministak ekimenera joateko deia. Alternatiba eta trantsizio feministaren inguruko eztabaida. Umeak dituztenentzako oharra; haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

Antolatzailea: Usurbilgo Eragile Feminista.

# Usurbil Futbol Taldea, martxan

Aurreko asteburuan jokoan zuten jardunaldian tarte bat hartu zuten Usurbil FT.-ko jokalari, entrenatzaile eta zuzendaritzako kideek, 2014-15 denboraldiko argazki ofiziala ateratzeko. Mikel Laboa plazan ospatu zen ekitaldiaren bidez, futbol klubak kirol urte honetarako osatu dituen taldeak ezagutarazi zituen.



Usurbil FT taldekoak "galaz" jantzi ziren aurreko larunbatean. Irudian, klubeko partaide batzuk ageri dira, "familia argazkian".

## Alebinak



## Kadeteak



## Ohorezko maila



## Infantilak



## Infantilak



## Jubenilak



## Futbol Eskola



### Usurbil F.T.-ren errifa zozketan saritua

Usurbil Futbol Taldeak errifa zozketak egiten ditu futbol partidetara hurbiltzen direnen artean. Azken errifa zozketako zenbaki saritua 933 izan da. Naiara Errasti aginagarri irabazi du, irudian duzuen produktu sorta.



Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- \* NOAUA! \* Udaletxea
- \* Kiroldgia \* Saizar \* Eroski City
- \* Aginagako Arrate taberna
- \* Zubietako Alandegi taberna

Edo deskargatu ezazu [www.noaua.com-etik](http://www.noaua.com-etik)!

tren eta autobus



noaua

ordutegia 14/15

## Bi saritu, lehen aldiz, Tipi-Tapa ekimenean

Pozik asko dituzue iruditari, Tipi-Tapako denboraldi berri honetako lehen sarituak. Eta ondo diogu, sarituak. Bat ez, ibilbide gastronomikoak hileroko bi herritar sarituko baititu aurrerantzean. Ohitura onak galdu behar ez direnez, aurreko ikasturtean bezala, oraingoan ere 150 euroko erosketa balea zozketatuko du Hurbilago Elkarteak, elkarte kide diren establezimenduetan xahutzeko. Eta zozketa ospatzen duen tabernak bi laguntzako afari batekin sarituko du, Tipi-Tapako parte hartzaile bat. Urriko zozketa Aitzagan ospatu zenez, Aitzagan bi laguntzako otordua eta 150 euroko erosketa balea nortzuei egokitu zaien?

Irudian dira urriko sarituak:

■ 150 euroko erosketa balearen zozketako saritua: 0.496 zenbakidun txartela, Mikel



Alazne Begiristain eta Mikel Santiago Garzon Aitzagan, sariak eskuratu berri.

Santiago Garzon.

■ Bi laguntzako afaria Aitzagan: 5.013 zenbakidun txartela, Alazne Begiristain. Zorionak!

### Hurrena, abenduaren 7an

Patatekin eginiko pintxo bereziak dastatzeko aukera egon zen azaroaren 2an.

Hurrengoan zer ote dugu? Laster jakinaraziko digute,

Txapeldun, Artzabal, Xarma, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetako langileek.

Hurrengo pintxo festa, bigarren urtemugakoa, abenduaren 7an. Edari eta guzti, 2 eurotan. Ez ahaztu Tipi-Tapa txartela tabernetan erakustez. Zazpi zigiluak bildu eta kaxetan utzi. Hurrengo saritua, zuetako edonor izan daiteke.

### Xiberoko ikastolen aldeko otarrak

Nafartarrak taldekoek bideraturiko elkartasun kanpaina azken txanpan da. Otarrak eskatzeko azken eguna, igande hau, azaroaren 30a.

#### ■ Ahuzki otarra, 39 euro

Ardi gazta (900 gr), ahate gibela (125 gr), bixkotx poltsa artisanala (200 gr), eztia (500 gr).

#### ■ Irati otarra, 51 euro

Ardi gazta (900 gr), ahate gibela (125 gr), bixkotx poltsa artisanala (200 gr), eztia (500 gr) eta axoa xahalki xehatua saltsan (750 gr).

Otarrak eskatzeko: aihert@gmail.com edo 636 265 592. Izena eman bestela, tabernetan jarriko diren karteletan.

Oharra: otarrak abenduaren 15 aldera helduko dira.

**pikabea**

**ASEGURU ARTEKARITZA  
ETA GESTORITZA ZERBITZUA**

**Telf: 943 37 11 18 fax-a: 943 37 19 97**  
**pikabea@pikabeaaseguruak.com**

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS



# LAB nagusitu da Michelinen

**H**auteskunde sindikalak egin zituzten aurreko astean Michelinen. LAB sindikatua izan zen garai-le, "emaitza historikoa lortuz", sindikatuko iturriek aditzera eman digutenez. Guztira sei delegatu lortu ditu hamazazpi kideko Enpresa Batzordean.

Bulegoetan, CCOO eta CSI sindikatuak izan dira bozka gehien batu dituztenak, 59 eta 53 hurrenez hurren. LABek 18 boto eskuratu ditu, eta ELAK 13.

Tailerrean, ordea, LAB izan da sindikatu bozkatuena, alde handiarekin gainera.

LAB sindikatuak aditzera eman duenez, emaitza hauei esker bi hauteskunde barrutietan "nabarmendu nahi dugu bereziki tailerrean jaso dugun babesa, bigarren indarra (CCOO) 100 bozkako aldea atera baitiogu bozen %43,5 lortuz. Era berean, bi hauteskunde barrutietan (bulegoetan eta tailerrean) lortu dugu or-



Aurreko astean egin ziren hauteskudean Michelinen.

## Michelin Lasarte-Oriako emaitzak

2014	BULEGOAK		TAILERRA		ENPRESA BATZORDEA	
	BOZKAK	DELEG.	BOZKAK	DELEG.	BOZKAK	DELEG.
LAB	18	1	163	5	181	6
CC.OO	59	2	65	2	124	4
CSI	53	2	24	1	77	3
UGT	EZ DA AURKEZKEN	EZ DA AURKEZTEN	54	2	54	2
ELA	13	0	63	2	76	2
		5		12		17

dezkaritza izatea". Michelingo langileei eskerrak eman nahi

dizkiete, "guregan erakutsi duten konfiantzarenatik".

## Bere horretan mantentzen da langabezia tasa

**I**railetik urrira alde handirik ez da izan; 350etik 349ra jaitsi da langabezia-tasa Usurbilen.

Gizonezkoak baino (169) emakumezko langabetu gehiago zenbatu zituzten (180) aurreko hilabetean. Zerbitzuetan, lanik gabeko herritar ge-

hien; 228. 378tik 297ra jaitsi zen urrian, kontratazioa Usurbilen. Sinaturiko kontratu ia denak, 275, aldi baterakoak.

Azken datuetan bada nabarmenezko moduko aldaketa bat, parekidetasuna eman baita kontratazioan; 149 gizonezko eta 148 emakumezko-

ri egin zitzaizkien lan kontratuak.

Buruntzaldean, iraileko datu bera urrian: 4.748 langabetu.

Gipuzkoan ia 500 langabetu gehiago, 47.427.

Zenbakiok, Estatuko Enplegu Zerbitzuak eman berri ditu ezagutzera.

## Euskadi Gastronomika bereizgarria jaso dute Aginaga, Arratzain eta Saizar sagardotegiek

Donostialdeko 43 turismo-zerbitzuz "Euskadi Gastronomika" bereizgarria eskuratu dute. Tartean, Usurbil eta Aginagako hiru establezimenduk; Aginaga, Arratzain eta Saizar sagardotegiek. Aginagakoaren kasuan, baita hotelak ere.

Guztiak, Euskadi Gastronomika klubeko kide dira, eta ekimen honekin turismo enogastronomikoa sustatzea dute helburu. Eusko Jaurlaritzak, Basquetour, Euskadiko Turismoaren Agentzia bidez martxan jarritako egitasmoa da hau, eta Behemendi-Donostialdea Turismoguneak bul-tzatzen du.

### Nazioartean ezagutaraztea

"Programa honen helburu nagusia, Euskadi zein potentzial enogastronomikoa duten eskualdeak, nazioarteko erreferentzia bilakatzea da. Donostialdearen kasuan, eskualdean turismo enogastronomikoa lantzea eta bertako gastronomia aberatsa sustatzea dira helburuak, bertako produktuan oinarritua, elkarlan publiko-privatuaren bitartez", egitasmo honen sustatzaileen esanetan.



Aginaga sagardotegia zein hotela izan ziren sarituak.

**TAXI**  
24h  
ORAIN 8 PLAZA!  
677 37 34 66 ] Joxe  
943 36 21 78 ] Etxabe

**Pinturas Ion**  
KANPOALDEKO FATXADAK ETA BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)  
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK  
690 99 05 58  
ionf81@hotmail.com

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**JUANTXO**  
BURDINDEGUA  
Zubiaurrenea 8  
943 370 008

# Auzokonpostatzean, aitzindariak

ALDUNDIAREN ZERO ZABOR SARIA 2014 JASO DUTE ERREKATXIKIKO BIZILAGUNEK

Egunotan bete dira hiru urte, Errekaxiki kalean, organikoa auzolanean konpostatzen hasi zirenetik. 2011ko azaroan inauguratu zuten hain zuzen, auzokonpostatzeko Usurbilgo eta Gipuzkoako lehen gunea aipatu kalean. Atez ateko bilketan bezala, auzokonpostatzean ere aitzindari izan zen udalerrri hau. Errekaxiki inguruan bizi ziren lehen familiak izan ziren, organikoa konpost bihurtzeko auzolanari ekin ziotenak. Esperientzia hau gerora, herriko eta Gipuzkoako beste hainbat txokotara zabaldu da.

Autokonpostatze nahiz auzokonpostatze guneeetan parte hartzen ari den herritar kopurua ia bikoiztu egin da hiru urteotan. 2011n 24.029 gipuzkoar ari ziren organikoa konpostatzen. Egun, 43.837 dira.

Herritar guztion eredugarritasuna saritu nahi izan du aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiak, "ingurumenarekiko arduraz jokatzeko eta baliabideak aurrezteko ahaleztuz" eta. Aurtengo Zero Zabor saria, Gipuzkoa mailan auzokonpostatze egitasmoan parte hartzen hasi ziren lehen herritarrentzako izango da; Zero Zabor ingurua iza-



Errekaxikiko famili batzuk auzokonpostatze egiten aitzindari izan dira.

teko ahaleginean, aitzindari ditugun Usurbilgo Errekaxikiko guneko erabiltzaileentzat. Saria usurbildarrek jasotzen astelehen goizean Aldundiaren egoitzan, Martin Garitano Ahaldu Nagusi eta Iñaki Errazkin ingurumen diputatuaren eskutik. "Askoren lan txikiak, emaitza onak ematen dituela argi dago", zioten sarituek. Zorionak!

## "Ez gara bidetik aterako"

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Usurbilgo Udalak herritarren ahalegina eskertu eta zoriondu zuten. "Zorionak eta eskerrak asko, Gipuzkoa garbiagoa, iraunkorragoa, arduratsuagoa, Gipuzkoa hobea daukagulako", adierazi nahi izan zuten Martin Garitano

Ahaldu Nagusiak, zero zabor bidean aurrera egiten ahalegintzen ari diren usurbildar eta gipuzkoar guztiak.

Ez zuten saihestu, azken egunotan, Zubietako hondakinen tratamendu plantaren inguruan sortu den ika-mika. Jaurlaritzak ingurumen baimena berri tramitatzea eskatu dio Aldundiari eta honek, azpiegituren lanak atzeratuko ditu. Garitanok ordea, argi adierazi zuen, "trabak jarriko dizkigute, baina ez gara bidetik aterako. Gipuzkoa garbia nahi dugulako". Iragarritako azpiegiturak izango ditugula adierazi zuen, eta 2016rako finkatua dagoen %60ko birziklatze-tasara ere helduko omen da Gipuzkoa.

## Zubietako planta eraikitze baimena, berri tramitatzen

Proiektua prest zegoen, esleipen publikora atera zain. Ingurumen baimena falta zuen eta ez diote eman. Eusko Jaurlaritzak baimena berri tramitatzea eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta honenbestez, Zubietan eraikitze-koak diren hondakinen tratamendu planta martxan jartzeko lanak atzeratu egingo dira. Aldunditik esan dutenez halere, "Jaurlaritzak ez gaitu mugiaraziko birziklapenaren aldeko gure konpromisotik". Konpromiso honengatik, gipuzkoarrak zigortu nahi dituztela adierazi zuten, ingurumen baimena berri tramitatu beharko zutela jakin eta gutxira, Aldundiak eta



Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren esanetan, "birziklapenaren aurkako erabaki argi eta garbia da" Eusko Jaurlaritzak hartu berri duena.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko (GHK) ordezkariak eginiko agerraldian. Argi diote halere; "Gipuzkoak hondakinak iraunkortasunez eta arduraz kudeatzeko eredu bati dagozkion azpiegitura guztiak izango ditu. Beranduago, baina izango ditu". Aurreko proiektutik oraingora dauden ezberdintasun-

engatik ukatu omen dio baimena Jaurlaritzak Aldundiari. Aurreko proiektuan hondakinak nahastuta heltzen zirela plantara, eta oraingoarekin gaika bilduta. Lehen hondakinak erretzea aurreikusten zela, orain konpostatzea. "Birziklapenaren aurkako erabaki argi eta garbia da", diote GHK-tik.

## "Globalki pentsatu, bertan ekin"

Zorion eta esker hitzak baita Usurbilgo Udaletik. Jose Maria Rivadeneira ingurumen zinegotziak, saria jasotzera gerturatu ziren familiak eskertu nahi izan zituen, "ingurumenaren alde erakusten duten konpromisoagatik. Zuek gauzatu duzue globalki pentsatu eta bertan ekin esaldia. Horrek meritu handia du, goraiatzekoa da". Aldundiak gai honetan eginiko lanak eskertu nahi izan zuten baita, "herriarekin batera, alboan" egoteagatik. Orain arte jorraturiko bideak gehiagorako eman dezakeela gogorazari zuten.

## Kalezar eta Txaramuntuko haur parkeak konponduko dira

Kalezar eta Kale Nagusiko Txaramunto gunean kokaturiko haur parkeak berri tramitatzea erabaki du Udalak. "Kalezarreko kasuan, segurtasuneko zorua jarriko da, joko batzuk konpondu eta berri egingo dira eta beste batzuk kendu eta berriengatik ordezkatu dira. Egin beharreko lanen aurrekontu osoa 7.812,12 eurokoa izango da eta Benito Urban enpresak egindako eskaintza hobetsi da lanak burutzeko", udal iturriek jakinarazi digutenez.

Kale Nagusiko Txaramunto guneko haur parkean ere segurtasuneko zorua jarri, joko batzuk konpondu eta beste batzuk berriengatik ordezkatu dira. Lan honek suposatuko duen gastua 5.876,67 eurokoa izango da eta Kalezarreko kasuan bezala, Benito Urban SLU enpresaren eskaintza izan da baldintza ekonomiko onenak aurkeztu dituenak.

## Urtea amaitu baino lehen

Alkatetzatik aditza eman digutenez, "bai Txaramuntun, baita Kalezarren ere, lan hauek urtea amaitu baino lehen egingo dira".

# Asteburu honetan, eskubaloi partida ugari



Udarregi nahiz Usurbil KE taldekoen partidak jokatu dira kiroldegian. Argazkia: @UsurbilEskubalo

**A**di, kilometroak 15 ekimenaren aurkezpen ikuskizuna dela eta, asteburuan Kiroldegian jokatzekoak ziren eskubaloi taldeen neurketa batzuk, beste udalerritako instalakuntza hauetara lekuz aldatuko dira eta:

## Azaroak 29, larunbata

Urnietako udal kiroldegian:

Alebin neskek:

Udarregi 6B-Langile (ordua zehazteke)

12:00 Infantil neskek:

Udarregi A Usurbil-Urnietako K.E.

## Azaroak 30, igandea

Oiardo Kiroldegian:

10:00 Kadete neskek: Usurbil K.E. B-Pulpo K.E.

12:00 Senior mutilak, 1. Nazionala:

Ucin Aluminio Usurbil-Ereintza

Tolosako Usabal Kiroldegian:

11:30 Infantil neskek, Tolosako Usabal Kiroldegian: Udarregi A Usurbil-Tolosa C.F.

## Oharra:

Alebin nesken bi neurketa hauek atzeratu egin dituzte:

Udarregi 5A-Udarregi 6A

Udarregi 5B-Udarregi 6C

## Autobus zerbitzua Loiura

Usurbil Kirol Elkarteko lehen nazional mailako senior mutilen taldeak, Loiu jokatu du etxetik kanpoko hurrengo neurketa. Abenduaren 7an izango da, eguerdiko 12:30ean, Urdaneta taldearen aurka. Aurreko igandean Iruñeako neurketari begira egin bezala, partida hau ikustera joateko autobus zerbitzua antolatu du Usurbil Kirol Elkartek.

## Bazkideek doan, 5 euro gainontzekoek

Abenduaren 7an, goizeko 9:45ean irtengo da autobusa Usurbildik. Prezioak; Usurbil K.E.-ko bazkideek eta 16 urtetik beherakoek doan. Bazkide ez direnek 5 euro. Izen emateko: 627 271 215 (Montse) edo usurbilke@gmail.com.

## Ostiral honetan, mus Txapelketa Artzabalen

Prestatu herrian zaletu gehien dituen karta jokorako. Oraingoan Artzabal eta Gure Pakea Elkartek antolatu dute mus txapelketa, azaroaren 28an, 16:00etan Artzabalen. Lehian parte hartzeko, egunean bertan eman beharko du izena bikote bakoitzak, 4 euroren truke.

## Sari potoloak

Tartean, Artzabalen bertan azaroaren 28tik 30era antolatu duten barrikote afarirako baleak:

- 1. saria: arkume erdia, sagardo botilak eta lau lagunentzako barrikote afarirako balea.
- 2. saria: Lau kilo entrekot, sagardo botilak eta bi lagunentzako barrikote afarirako balea.
- 3. saria: Bi lagunentzako barrikote afarirako baleak.



Bikote bakoitzak egunean bertan eman beharko du izena, 4 euroren truke.

## Eskubaloi taldeko azken errifa zozketa

Ikasturtea hasi zenetik, hona zozketa asko egin ditu eskubaloi taldeak. Juan Mari Agote izan da Usurbil Kirol Elkarteko errifa zozketako azken saritua. 2.668 zenbakidun errifaren jabeari 2 lagunentzako otordua egokitu zaio, Olarrondo jatetxean.



Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ARTZABAL**  
Baserría - Jatetxea  
943 36 91 39  
artzabaljatetxea.com

**Kima**  
MASAJE LEKUA  
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA  
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Adosatu bat egiteko famili bat behar da Usurbilen. mareniria@gmail.com

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekia, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 230.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan. 3 logela, egongela, jangela, komuna, gas naturala eta berogailuak. Tel. 619 212 860 / 685 228 194.

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukalde. 156.000 euro. 699 680 265.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logetakotako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

## Alokairuan

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatuko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570 euro. 2 logela, 2 hilabeteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600 euro. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela bat alokagai. 250 euro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Garaje itxia alokatzen da Kale Nagusia 22an. 20 m. 618 860 270

Honda Accord, 1.800 euro. Egoera onean. 696 50 67 39. 163.000km, gasolina, 5 ate, mailetero handia eta aire egokitua.

2 marra dituen, aparkalekuak alokatu nahi ditut. Kale Nagusian hasieran. Bizkarre auzoan. 70 euro hilabetean. 696 014 585.

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen

da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Herriko emakume euskaldun bat, oso informe onekin, arratsaldetan 2-3 orduz, haurrak edo helduak zaintzen lan egiteko eskaintzen da. 687 348 223

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filozofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Tel. 608 299 579.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelarekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. Tel. 680 804

124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu internan joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarrekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, internan edo orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. Tel. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxetxetan bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest: LHn ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta



**Zorionak Gorka!** Azaroaren 30ean 9 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu potoloak Imanol, Nikoke, Martina eta Ximunen partez.



Amona Pilar eta aitona Joxe Mari, Diamantezko ezteiak edonork betetzen ez dituelako eta bizitza maitasunez bizitzen konpartitu dugulako **zorionak eta muxu handi bat** familia guztiaren partez.



**Zorionak Nora!** Aurten 6 urte eta hortz bat kili-kolo, ze poza eh xomorro? Hasi presatzen txokolatezko bizkotxoak... zai gaude eta! Jaso milaka muxuuuuu...



**Zorionak Oihan!** Oraingoan 5 kandela itzali behar dituzu. Urte askotarako eta muxu handi bat etxekoen partetik!



**Zorionak Peru!** Azaroaren 27an 2 urte handi egiten dituzulako, Eñaut eta etxeko guztien partez, zorionak!

Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: astelehena, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

ingurumena. DBH eta Batxiller-goan ingeleza, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titularekin. 619511789 / 943 760418.

Erizaintza laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriarekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketara edo umeak zaintzen lan egiteko nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketara egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Telefono zenbakia: 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konponatzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrik ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egiteko nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska.

653724338

Erizaintza graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonen erizaintza zaintzeko emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrik emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrik ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsalde. Irakaskuntza diplomata. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10

urteko esperientzia sukaldean, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketara eta zerbitzari lanetan lan egiteko nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketara lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntza esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABA, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arrat-

saldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. Telefonoa: 636601644

Matematika klaseak, maila gutxieta, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrik emateko prest. 688 661 997

(Garbiñe).

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Xarma tabernarako sukaldari bat behar da asteburuetarako. Tel. 943 368 771.

**BESTELAKOAK**

Atxegaldeko Erdiko kalean katu bat galdu da. Emea eta marroi oso argia, Sasi du izena eta argala eta txikitxo da. Norbaitek aurkituko balu eskertuko genuke abiatzea, eskerrik asko. 679132707

Etxean genituen bi kanario falta zaizkigu. Aurkitzen badituzue, deitu: 943 36 55 74 (Regina).

Kafetegi bateko material guztia salgai. 7 urte, diseinuko materiala eta kalitate handiko makinak. Fakturaren %50eko deskontuarekin. 607491079. Agustina.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. Tel. 688888176. Pablo.

Trona bat JANE markakoa salgai. Berri berria. Urdina marrazkiekin. Tel. 666 373 665.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurrar biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943362072.

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. euro 1 kilo. Bitartekariak gabe. Tel. 637 929 093.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Ezkartzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 / djlarra@usurbil.com

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreoz - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak Azaroak 27 - abenduak 7

**Osteguna 27** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 28** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

**Larunbata 29** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Igandea 30** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Astelehena 01** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Astearte 02** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteazkena 03** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Osteguna 04** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola 9. Lasarte

**Ostirala 05** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 06** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 07** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30etara

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** AIZPURI ODRIOZOLA, KARMELE. Latxumbe berri, 11. Hernani. 943552087 22:00 - 09:00

# Agenda azaroa

## 28 ostirala

- **Mendi Astea 2014: Urtean zehar egin dituzten irteeretako irudien proiektzioa** 19:30ean Sutegin.
- **Euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaraztea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## 29 larunbata

- **#Kilometroak15: aurkezpen ekitaldia** 19:00etan kiroldegian.
- **Mendi Astea 2014: irteera Usurbil inguruetara eta bazkaria** Patrín.

## 30 igandea

- **Erle Eguna** (ikus 13 or).
- **Eragile Feministaren aurkezpena eta elkarretaratzea frontoian,** 12:00etan, "Autodefentsa feministaz lehertu!" aldarripean.

## Andatza mendiaren egoeraz berri emateko bilera deitu dute

**G**ogoan izango duzue, mendia zegoen egoeran egonda, maiatzeko lehen igandeko Andatza Egunik ez dela ospatu aurretik. Andatza M.K.T-k ingurua zer egoeratan zegoen jabetu eta etorkizuneko kudeaketaren inguruko eztabaida piztu nahi zuen. Gaiari buruz aritzeko unea heldu da. Andatza mendiaren kudeaketaz hitz egiteko bilera deitu dute ostegun honetan, azaroaren 27an, 18:00etan Potxoenean.

Ondoko gaiak eztabaidatu asmo dituzte:

- 1- Aldundiarekin negoziatzeko eta adosteko hitzarmena.
- 2- Egun dagoen kudeaketa planari buruzko txostena.

### Ekarpentzako bilketa

Aurkezturiko proposamenen aurrean, ekarpenak egin ahaliko dira. Aipaturiko bi gaiok gain, puntu gehiago aztertzeak aukera egongo da bileran.

## Mendi Astea 2014

### Azaroak 28, ostirala

19:30ean, Sutegin

2014. urtean Andatza Mendi Elkarrekin antolatutako irteeren ikus-entzunezkoa.



Aldundiarekin negoziatzeko eta adosteko hitzarmenaz hitz egingo dute.

Zumaia-Orio, Belate-Arraras, Arraras-Gorriti, Meazuri (Irun), Arlaban-Araotz, Gavarnie (Estaubé-Taillon 3.144 m), Bidarra-Iparla-Izpegi, Valderejo eta Fiteron ateratako irudi bilduma.

Oharra: 2015eko federatu txartelak berri eta asteburuko ibilaldirako izena emateko aukera izango da.

### Azaroak 29, larunbata

08:00 Irteera Usurbil inguruetara, frontoitik abiatuta.

Ondoren, bazkaria Patri jatetxean.

Oharra: bazkarira joateko izena alde aurretik eman beharko da, ikus-entzunezko saioak programatu diren egunetan, Sutegin jarriko den mahaian.

### Datozenak

#### Txotxongiloak Aginagan, Euskararen Egunean

Abenduaren 3an asteazkena, 17:00etan, "Katillukadak" txotxongilo saioaz gozatzeko aukera izango dute Aginagako ludotekan.

**Eta gabonetarako txokoak ere prestatzen hasi dira.** Abenduak 22, 23, 24, 26, 29, 30, 31, urtarrilak 2, 5. Orduetara: Sarrera 9.00-10.00, irteera 13.00. Prezioa haur kopuruaren arabera zehaztuko da. Izena emateko epea abenduaren 12an bukatuko da.

607484597 (Ainhoa) aginaga@eskolatxikiak.org  
Antolatzailea: Aginagako Guraso Elkarte.

#### Abenduak 6, 'Kaos y lentejas' jaialdia gaztetxean

12:00 Prestakuntza.

14:00 Herri bazkaria frontoian: dilista dastatzea, borondatearen truke.

18:00 Kontzertuak. Venganza (Zaragoza), Piñen (Bartzelona), Total Arse (Zarautz), Ernia (Zarautz), Infekzioa (Bartzelona-Usurbil), Hondartzako Hondakinak (Iparralde), Endemaño (Bizkaia), Octopussys (Bizkaia), Segurrata (Zaragoza). Sarrera, 5 euro.



Octopussys taldekoak arituko dira jaialdian.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**USURBIL AUTOAK**  
·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

**Ford**

**SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

**zerbitzu ofiziala**  
Zumartegi industrialdea

943 36 10 79



# AZAROAN

huribilago

Usurbilgo Merkataritza eta Gasteizko Elkarteak

# %5

# DESKONTUA

Azaroaren 22tik 30era,  
Hurbilago Txartelarekin ordainduta,  
% 5eko deskontua erosketa guztietan.

- |  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|--|--|--|--|
|  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |  |  |  |  |

# Santo Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



Noaua!k baserritar guztiak  
**gonbidatu nahi ditu**

Herritarren sargardoa dastatzeko eta  
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.  
Aurten ere lehiaketa bikaina izango dugu.



Abenduaren **14an**  
**igande** goizez

## Sagardo lehiaketa:

(Sagardotegiak ez dira sartuko lehiaketa honetan.)

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten eta gainera, lehiaketan parte hartuko dute.

**Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.**

## Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produkturekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

**Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.**

## Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua.lra ekarri eta izena emateko datak:


**AZAROAREN 26tik ABENDUAREN 10era**  
(biak barne)

- Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko deitu gure bulegora **(943 360 321)**

## Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketan, ondorengo sariak izango dira:

- **1go saria: 150€ + txapela**
- **2. saria: 90€**
- **3. saria: 50€**



**noaua**